

ARGIA.EUS/LARRUN

ANTIWOKISMOA

ESKUIN MUTURRAREN MASKARA BERRIA



LARRUN#307

ZAPALDUEN HITZA ZOKORATZEKO ASMAKIZUNA

EGILEA | **JENOFA BERTHOKOIRIGOIN** AZALA | **IÑAKI LANDA**

Wokismoari begiratu beharrean antiwokismoari so jarri gara. Antiwokistek sorturiko multzoa delako wokismoa, eta antiwokismorik ez balego ez legokeelako wokismorik. Multzo eklektiko horri begiratu, eta laster ohartzen gara eskuin muturrak hastio duen guzia barnebiltzen duela: feministak, antirrazistak, izpiritu kritikodun pentsalariak, trans aktibistak... Finean, 'woke' guziek zera dute partekatzen: zapalkuntza estruktural bat salatzen eta justizia soziala aldarrikatzen dabiltza. Alta, jendar-tearentzako mehatxu gisa aurkezten dizkigute. Argi geratu dadila: eskuin muturreko pentsalariak xeheki landuriko pentsamoldea da antiwokismoa, AEBetako *think tank* gogoeta esparru batzuetan eraikitakoa. Horregatik dugu honen anatomia egin beharra, oinarrian dagoena eta helburu duena begi-bistatik ez galtzeko.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.918 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2025eko maiatzaren 25a

Feminismoa wokismoa da. Borroka antirrazista wokismoa da. Trantsizio ekologikoa wokismoa da. Trans identitatea wokismoa da. Parekidetasunaren aldeko politika wokismoa da. Idazkera inklusiboa wokismoa da. Ikerketa dekoloniala wokismoa da. Polizia indarkeriaren salaketa wokismoa da. Heteroaraua galdekatzea wokismoa da. Amatasunari buruzko hausnarketa kritikoa wokismoa da. Besteak beste. Haatik, ñabardura bat: nehork ez du berea wokismotzat eta inor ez da wokismoarekin identifikatzen. “Antiwokismoa ideologia berri bat da, hutsetik eraikitako arerio baten arabera osaturikoa. Berez, arerio hori –wokismoa– ez da existitzen. Definituriko etsai horri esker osatzen du berea antiwokismoak, eszenatoki politikoan existitu ahal izateko”. Hori dio Martin Deleixhe-k, Bruselako unibertsitateko zientzia politikoetako irakasleak.

Definizioa gehiago osatu nahian, ondokoa ere gehitzen dio: “Zientzia sozialetako jakintza kritiko oro du jomugan jartzen, errealitatean diskriminaziorik ez dagoela edota diotena baino anitzez gutxiago dagoela frogatzeko”. Diotenaz, ezkerreko



“ANTIWOKISMOA IDEOLOGIA BERRI BAT DA, HUTSETIK ERAKITAKO ARERIO BATEN ARABERA OSATURIKOA. BEREZ, ARERIO HORI –WOKISMOA– EZ DA EXISTITZEN”

MARTIN DELHEIXE

“sektarismo ideologiko” baten menpe lirateke unibertsitateak, eta adierazpen askatasunaren eta unibertsalismoaren izenean, ikerketa eta hezkuntza “gangrena horretatik ater” beharrean dabilta. Zehazkiago, karrikatik eramandako diskriminazioen kontrako borrokek jakintza-aren esparrua “kutsatu izanaren” mezua zabaltzen dabilta. Baina finean, anti-intelektualismoaren aurpegi berria da antiwokismoa: jakintza sozial kritikoa dituzte jomugan, eta arerio nagusienak dituzte ikuspegi dekolonialetik eta interseksionalita-

tetik bideraturiko lanketa akademiakoak. Ondokoa dio Deleixhek, David Paternotte lankidearekin idatzitako *Qu’est-ce que l’antiwokisme?* (Zer da antiwokismoa?) artikuluan: “Gure ustez, wokismoaren kontzeptuak analitikoki ez du interes handirik, izendapen horren pean batzen direlako elkarren artean arrunt ezberdinak diren fenomeno soziopolitikoak. Nozio horrek ez digu balio inguratzen gaituen mundu soziala deskribatzeko, ulertzeko eta esplikatzen. Haatik, argi da zenbait eragile politikok eta intelektualek termino hori estrategikoki erabili dezaketela –baita erabiltzen dutela ere–, hain justu, arerioei sinesgarritasuna kentzeko eta indar harremanak birkonfiguratzeko”.

Antiwokismoaren jomugan kausiturik, ideologia eta mugimendu hori aztertzeke beharra sentitu zuten 2023an Belgikako hainbat unibertsitariok. Horien artean dugu Deleixhe bera, galderei erantzuteko tarte bideratu diguna. *Anatomie de l’antiwokisme* (Antiwokismoaren anatomia) izeneko ikerketa eguna antolatu zuten 2023ko abenduaren 11n, eta bilduma jaso zuten ondotik, *La Revue Nouvelle* aldizkariaren 4. zenbakian. Kontzeptu berri horrek bere baitan dakarrena azaleratzeko bidean, antiwokismoa ikerketa-objektu gisa kontsideratzea beharrezkotzat dute. LARRUN honetan ere bide beretik jo dugu. Antiwokismoaren anatomia bat egin nahi izan dugu.

ESKUIN MUTURRAREN DISKURTSO LANDUA

Oinarrian, AEBetatik dator antiwokismoa, AEBetako eskuinaren esferatik. 2010. hamarkadaren erdialdean gara, eta *think tank* gogoeta talde pribatu batzuk dabilta eskuin muturrari buruz hausnarrean, erakargarriagoa izanzen liratekeen diskurtso eta proposamen politikoak osatzeko asmoz. Berez, gogoeta hori ez da berria, aitzinetik ere izan ziren



ASSOCIATED PRESS

RON DESANTIS Floridako gobernadore ultraeskuindarra.



AEBetan garatu dute antiwokismoaren estrategia politikoa, Black Lives Matter mugimendu antirrazistak karrikak harturik zituela.

beste batzuk, eta horiei zor zaizkie 1990eko hamarkadan gertaturiko *Politically correct* (Politikoki zuzena) terminoaren berreskurapena, zein 2010eko hamarkadako *Cancel culture* (Ezeztapenaren kultura) nozioaren loraldia. Kontzeptu guzi horiek helburu bera dute: gutxiengoan direnen diskurtsoak zokoraturik mantentzea, munduaren ordena bere horretan atxikitzeko. Beraien zirkulu itxian gogoetatzen zebiltzala egituratuko zen Black Lives Matter afroamerikar mugimendua, AEBetako pertsona beltzek jasaten duten indarkeria sistemikoa salatzen – tartean, Poliziaren hilketak eta inpunitea –. *Stay woke* –esnatuta egon zaitez– leloa zabaldu zuten, pairaturiko arrazakeriaren parean zutik egoteko aldarrikapen gisa. Arrazakeriaz gain, bestelako diskriminazioentzako ere balio baldin badu kontzeptuak, eskuin muturreko eragileek zuten terminoa berreskuratuko eta bestelakotuko, finean, berdintasunaren eta askatasunaren aldeko borroka orori zilegitasuna kentzeko. *Stay woke* laburtu *woke*-era, mugimendu bat definitzeko balio duen *ismo* atziz-



ZAPALDUEN ALDARRIAK ZIKINTZEN ETA ZOKORATZEN DABILTZA, BERAIE PRIBILEGIOEK HOR SEGITZEKO SENDO

kia gehitu eta mamua sortua zuten: *wokismoa*. Zapalkuntzen kontrako aktibismoa eta horien ohako intelektual gisa ikusitako unibertsitateak hartu zituzten jomugan.

Emankorra zirudien kontzeptuak, eta laster zukua aterako zioten eskuin muturreko politikariek ere. Ron DeSantis Floridako gobernadore ultraeskuindarra izan zen ikuspegi eta diskurtso horretan apustua egin zuen lehena. 2023. urtean gara, eta AEBetako presidentetzarako Alderdi Errepublikanoen primarioetan zegoenak “woke birusari” gerra deklaratzeko dio. Bide bera hartuko zuen laster Donald Trumpek ere, “*woke*

is bullshit” edo “*woke-a kaka hutsa da*” esaldiarekin hasiera emanda bide berri –baina ez hain berri– horri. Dantzan sartuko ziren ere eskuin muturrarekin eskuz esku dabilzan *mainstream* komunikabide botere-tsua.

Mundu mailara zabaldu, eta beste eskuin muturreko ordezkariak laster berenganatu zuten ingelesezko terminoa: Argentinako Javier Mileik –“*Woke kantzerra*”–, Italiako Giorgia Melonik –“*wokismoaren kontrako gerra*” zein Hungariako Victor Orbanekek –“*woke birusatik babestuko ditugu gure haurrak*”–; eta guretik hurbilago, Frantziako Estatuko Marine Le Penek –“*pozoia wokista*”– edota Vox alderdi espainolak hilabete has-tapenean aurkezturiko “*woke ideologiaren kontrako plana*”.

Sare sozialak izan dira zabalpenerako tresna ahaltsuak, bere horretan badirelako ideien zabaltzeko bide eraginkorrak, baina, oroz gainetik horien jabeek ere diotelako gerra deklaraturik wokismoari. Dela X-ren jabe Elon Musk zein Facebook eta Instagramen jabe Mark Zuckerberg, badabilza borroka hori lehen le-



ANTHONY QUINTANO

rrroan jarrita, besteak beste, ikus-
pegi maskulinista zabalduz, trans
pertsonekin kontrako ofentsiba go-
gorra bideratuz eta beren enpre-
setako emakumeen eta pertsona
arrazializatuen inklusiorako poli-
tikei bukaera jarritz.

Musk eta Zuckerberg dira
munduko bi pertsona aberatse-
nak, 379.000 milioi dolarrekin
lehena eta 184.000 milioirekin
bigarrena. Hori ere zehaztu beha-
rra dago, ikerketa-objektua uler-
tu nahi bada. Eta berdin-berdin
zehaztu beharra dago gizonak
direla, heterosexuak eta zuriak.
Antiwokismoa pribilegioen beti-
kotzearen aldeko proposamena
delako, sistema zisheteropatriar-
kal kapitalista, kapazitista eta
arrazista bere horretan atxikitze-
ko dabilena. Horregatik dituzte
zapalduen aldarriak eta proposa-
menak zikindu eta zokoratu nahi,
beraien pribilegioek hor segitze-
ko sendo. Zentzu horretara min-
tzo da *Le lobby transphobe* (Lobby
transfobia) liburua plazaratu be-
rri duen Maud Royer trans akti-
bista: "Patriarkatuaren defentsa

dago oinarrian. Ez dago besterik.
Arrazismoa, gizonen pribilegioen
defentsa eta emakumeen mende-
rakuntza zabaltzeko diskurtsoari
esker irabazten dituzte hautes-
kundeak. Amerikar kontserbado-
reek ulertu dute emakumeen eta
trans pertsonen eskubideez ari
garenean, funtsean, gauza beraz
ari garela, autodeterminazio es-
kubideaz eta norberak norbere
gorputzaz erabakitzearen eskubi-
deaz ari garela. Trans identita-
teak bere baitan dakar genero
kategoria, eta hortik gizonen
dominazioa, auzitan jartzearena.
Horregatik arriskutzat daukate
trans identitatea".

Soa eskuin muturrari baka-
rrik mugatu beharrean, Delhei-
xek uste du indar politiko horren
zabalpena testuinguru politiko
eta sozioekonomikoari ere lotu
behar zaiola: "Dela Blair Britainia
Handian, Schröder Alemanian,
Hollande Frantzia... ezkerrearen
ospe-galtze batean gaude, berez
bere balore kardinala izandako
berdintasunaren defentsa biga-
rren mailan kokatu zuelako ezke-

Stay woke, esklabotzaz geroztik

1896an gara, AEBetan, eta *The Awakening of the Negro* (Beltzaren esnatzea) testua plazaratzen zuen Booker T. Washingtonek. Esklabo ohia zen bera, irakaslea eta afroamerikarren esku-bideen defendatzailea. Esklabotzaren bukaera izanik ere, askatasunean bi-zitzeko deia egiten zien afroameri-
karrei, "esna dagoen izpiritu baten" beharra azpimarraturik. 1865eko abenduaren 18an esklabotza abolitu bazuten ere AEBetan, arrazakeria eta arraza segregazio bortitza pairatzen zutelako pertsona beltzek, nagusiki hegoko estatuetan.

Afroamerikarren askapen borrokan betitik presente egon den leloa dugu *Stay woke* (Izan esna). Besteak beste, 1938an, Leadbelly blues musikariak *Scottsboro Boys* abestia grabatu zuen, epaimahai zuri batek bortxaketaz aku-satutako bederatzi mutil afroamerika-
rren aurkako epaiketa baten kontaki-zuna eginez, ondokoa azpimarratuta: *Best stay woke, keep their eyes open* (Onena, esna egotea da, begiak zabalik edukitzea). 1943an, *The Atlantic* aldiz-
kariak J. Saunders Redding irakaslea-
ren *A Negro Speaks for His People* (Beltz batek bere herriarentzat hitz egiten du) artikulua argitaratu zuen, adingabe beltz sindikalista bat aipatuta, eta on-dokoa zioen: *Waking up is a damn sight harder than going to sleep, but we'll stay woke up longer* (Esnatzea loak hartzea baino gogorragoa da, baina denbora luzeagoan egonen gara esna). Klase eta arraza zapalkuntza batzen zituen haus-narketa izan zen hura.

2014an hartu zuen plaza berriz ere esna egoteko aldarriak, arrazakeria sis-temikoaren kontrako borrokaren lelo inportantea bihurturik. Fergusonen (Missouri) polizia zuri batek Michael Brown afroamerikarra tiroz hil izana salatzearen protestetan loratu zen #StayWoke traola. Black Lives Matter mugimenduak aldarrikaturiko esaldia da. Geroztik, bestelako zapalkuntzen kontrako borroketa ere erabiltzen da. Hori horrela, *woke* ez da existitzen, *stay woke* ordea bai. Eta aspalditik gainera.

rrak, neoliberalismoan murgilduta". Horrez gain, krisi sozioekonomikoaren giroan kokatzen du eskuin muturraren loraldia: "Desberdintasunak handitu arau, hobenduna bilatzeko joera handituz doa, zapalduen arteko lehia eta gatazka elikatuta. Ogi-papurrentzat borrokatu behar duzunean, are basatiagoa da borroka".

OFENTSIBA IDEOLOGIKOA ETA POLITIKOA

Kezkaturik so egiten dio ultraeskuinaren gorakadari Deleixhek: "Oker gabilitza erratearekin eskuin muturrak ez duela gogoetatzten. Alderantziz, badabil hausnarrean, intelektualak baditu, eta aspaldi hasi ziren ezberdintasunen salaketak deuseztatzeko balioko lukeen pentsaera-sistema bat lantzen, finean, jendartean ezberdintasunak egote hori normaltzat kontsideratua izan dadin".



ANTIWOKISMOAREN INDARRIK HANDIENA: EZ DUELA ZEHAZKI EZER DEFINITZEN. GUZIA DEFINITU DEZAKE, HOTS, ESKUIN MUTURRAK TRABAN DUEN GUZIA

Aspaldiko kontua baldin bada ere, antiwokismoak bere berezitasun propioak dituela dio: "Termino horren arrakasta zor zaio, hain justu, zehaztugabea izateari, eta guzia salatzeko duen gaitasunari. Sona belzten die feminismoari, antirrazismoari, queer borrokei, etxebizitza zein lan

esparruko diskriminazioen kontrako borrokei, eta abar, eta abar. Hori da antiwokismoaren indarririk handiena: ez duenez zehazki ezer definitzen, guzia definitu dezake, hots, eskuin muturrak traban duen guzia".

Bere ohiko diskurtso arrazista eta xenofoboarekin seduzitutakoez haratago zabaltzeko diskurtso borobila landurik dute. Batetik, unibertsalismoaren eta adierazpen askatasunaren baloreak berenganaturik dituzte, eta bestetik, izu-ikararen hedapena xehe-xehe landuta dute, bakar batzuen beldurra jendartearen beldur bihurtarazteko xedez.

Stanley Cohen soziologoaren arabera, "izu-ikara morala" garatzen zaigu gertakizun, pertsona edota pertsona multzo bat jendarte baten balore eta interesentzako mehatxu gisa ikusia denean. Kasu horietan dagoen beldur giroa komunikazio kanalen amplifikazioari lotzen du



Antiwokismoa lehentasunetan jarrita dute Mendebaldeko alderdi ultraeskuindar guziek.

Cohenek. Termino hori dakarren *Folk Devils and Moral Panics* (Folk deabruak eta paniko moralak) liburuan adibidetzat hartu zuen 1960. hamarkadako Ingalaterrako itsas-bazter bateko gazteen arteko borroka bakan batzuen harira zabalduko beldurra. Komunikabideek gertakizun bakan horiek behin eta berriz aipaturik eta hanpaturik, azkenean, kontrol sozialaren gogortzean ikusi zuen jendarteak eman beharreko erantzuna.



**"ESKUIN MUTURRA
BADABIL ASPALDIAN
EZBERDINTASUNEN
SALAKETAK DEUSEZTATZEKO
BALIOKO LUKEEN
PENTSAERA-SISTEMA BAT
LANTZEN"**

MARTIN DELHEIXE

Adibide (baita *fake news* edo berri faltsu) bakan batzuen gainean oinarrituriko izu-ikararen giroa sortzeko saiakeran dabilta antiwokismoaren sustatzaileak, wokismoak obskurantismoa eta totalitarismoa ekarriko lukeela errepikatuta. Frantziako Estatuko antiwoke ezagunek beti dute adibide bera: 2019ko martxoan Pariseko Sorbonnes Unibertsitatean Eschyle antzerkia ezeztatu izana *Blackface*-a -azal zurikoek aurpegia beltzez marrazteari horrela deitzen zaio- salatzeako protesta antirrazisten eraginez. 2019koa da gertakizuna, eta oraindik ere hori darabilte ahoan. Aldi oro adibide bera emateak, agian azaleratzen digu besterik ez dutela, ez? Unibertsitario gisa problematikotzat dau-



ANA BANEAGAS

2025eko martxoaren 8ko manifestazioa, Donostian.

*Antiwoken adierazpen
askatasuna (sic)*

"Diskriminazioa", "ez-binarrio", "justizia soziala", "kutsadura", "arrazakeria", "buru osasuna", "energia garbiak", "biologikoki emakumeak", "LGBT", "feminismoa"... dozenaka hitz ez erabiltzeko manua bideratu berri die sektore publikoko langileei Donald Trumpek. Orotara, 200 zenbatu ditu *The New York Times*-ek. Wokismoaren kontra egiteko neurri gisa aurkeztu du erabaki hori. Bilatu ditza-kezue, ez dituzue aurkituko, desagertu egin ditu. Diktaduren peko liburu erretze masiborik ez dugu ikusi, baina bai adimen artifizialari esker topatu eta desagerrarazita-ko milaka eta milaka dokumentu. Ez da hain ikusgarria, baina emaitza bera du. Azkenean, gauza bera da: (neo)faxismoa. Gogoeta, errealitate eta mundu ikuskera batzuen isilarazte inposatua.

ka hori Delheixek. Baina ez da antiwoken arrangura. Alderantziz, *fake news* -berri faltsuen- eta *bullshit* -zernahikeriak- delakoez osaturiko informazio eta formazio garai berri honetan oztopo dituzte unibertsitateek dakarten hausnarketa kritikoa eta jakintza zientifikoa.

Behin eta berriz errepikatzearen bortxaz lortzen dute faxista batzuen beldurra jendarte osora zabaltzen, eta horri tiraka, proposamen politiko libertizidioak onargarritzat bihurtzen. Hori ez da fabulazio bat, hori Historiaren irakaspena da. Antiwoken estrategia da, eta adibide argienak ditugu hezkuntzaren sektorean bideraturiko presio-kanpainak: genero berdintasunaren aldeko programek umeen oreka mehatxatzen dutela errepikatzen dabilta, helburutzat harturik heziketa parekideago baten aldeko urrats ororen deuseztapena. Trans pertsonen eskubideen aitortza bidean jarritako oztopoak -ulertu, erasoaldiak- dira beste adibide esanguratsuak.

Bi hitzez: nahikoa da orain arteko parekidetasun eta inklusio neurri eta legeekin; jada urrunegi joan gara eta horrela segituz jendartea bera genuke hankaz gora jarrita.

HITZEN LAPURRETA

“Trikun-trakun egin eta giza esku-bideen aldeko diskurtsoz edertzen dute haiena. Wokismoak, postmodernismoaren gailur politiko gisa aurkezturikoak, elkar-bizitzaren arau kardinalak –unibertsalismoa, laikotasuna, adierazpen askatasuna edota herritarren arteko berdintasuna– deuseztatzen dituela diote. Wokismoaren kontra egitea, demokraziaren eta giza eskubideen alde egitea litzateke”, irakurri dezakegu *Zer da antiwokismoa?* artikuluan. Kontuan harturik jomugan dituztenak –feministak, ekologistak, antirrazistak, LGBTQI aktibistak...– eta horien aldarrikapenak –laburbilduta: justizia soziala eta askatasuna guztiontzat–, gehiegikeria da balore horien erabilpena, are gehiago dakigularik eskuin muturra dagoela atzealdean.

Antiwokek bideraturiko adierazpen askatasunaren instrumentalizazio hori aztertzen dabil Thomas Hochmann, Pariseko unibertsitateko zuzenbide irakaslea: “Alde batek, inoiz ez dugu hainbesteko eskuin muturraren gorroto esaldirik entzun irratian, telebista eta aldizkarietan. Eta beste aldetik, diskurtso horiei eusten dieten pertsona berberak dute zentsurapean direla oihu egiten, horiek dira kexu ezin dutelako ezer erran. Haien aurka borrokatzeko ahalegin oro deslegitimatzen du arma bihurtu dute adierazpen askatasuna”. Afera da hitz egiterakoan kritikak, kontra-iritziak edota herraren zabalpena mugatzeko legediak jaso behar izate hori zaiela ezin jasana. Horregatik ere dute, beraien hiztegia aldatuta, helburu bera atxiki arren, beraiena eztiturik aitzina egin ahal izateko: “arraza” beharrean “erlijio”

edo “kultura” erabilia, “beraienaren kontra” egin beharrean “geurearen defentsaren alde” dabilta, “gutxiagotasuna” beharrean “ezberdintasuna” erabiliko dute...

Unibertsalismoaren balorea ere dute berenganaturik. Kontua da, *Antiwokismoaren anatomia* dossierrean ohararazten duten gisara, antiwokismoak defendituriko unibertsalismoa hegemonikoa dela, pribilegiatuek definituriko unibertsalismoa dela. Statu-quo-a mantentzeko gisan, “aldarri identitariotzat” edo “komunitarismotzat” etiketatzen dute hegemoniaren eta zapalkuntza sistemen irakurketa kritiko oro.

“Unibertsalismo intentsibo eta kritiko bat jarri behar diegu parean, gure jendarte ‘humanistaren’ zutabe diren zapalkuntza estrukturalak auzitan jartzeko, eta beraien duintasunaren eta emantzipazioa-



MARINA GALLARDO

Bilboko manifestazioan jarritako pankarta, martxoaren 8aren kari.



ren alde borrokan dabilzanek duten ‘eskubideak ukaiteko eskubidea’ ohoratzeko”. Delheixen ustez, hori da antiwoskimoaren aurka egiteko bideetariko bat. Baina ezin da izan unibertsitatearen esparruan bakarrik bideratuko den borroka bat. Karrikatik ere aurka egiteko beharra ikusten du: unibertsitateen kontrako erasoez gain, politika publiko zehatz batzuk dituztelako jomugan –aniztasuna, berdintasuna eta inklusioaren izenean bideraturikoak–, baita gutxiengoak eta horien aldeko militanteak ere.

MUGIMENDU ARRISKUTSUA, ZENTZU ANITZETAN

Elkarbizitzarentzat mugimendu arriskutsua delako antiwokismoa. Lehenik eta behin, ultraeskuina boterera daraman proposamen politiko bat delako, eta hori oinarri are zabalago batekin: “Kontziente izan behar gara orain arte bakoitza beretik zebiltzan taldeak bateratzea lortu dutela”. Horrek dakar indar politikoen birkonfigurazio bat, hau da, eskuin neoliberalaren eta eskuin muturraren, baita ezkerreko eta zentzuko zati baten arteko juntatzea. Ondokoa irakurri dezakegu *La Revue Nouvelle*-n dossierrean: “Berez bate-



ANTIWOKISMOAK DEFENDITURIKO UNIBERTSALISMOA HEGEMONIKOA DA, PRIBILEGIATUEK DEFINITURIKO UNIBERTSALISMOA DA

raezinak zirela pentsatzen genuen bi diskurtsoren arteko konbergentzia baten sintoma dugu antiwokismoa: eskuin muturraren diskurtso identitarioa, nazionalista, askotan modu irekian sexista, arrazista eta homofoboa dena, eta kontzientzia onez zabalduriko diskurtso ‘humanista’, ‘unibertsalista’, ‘demokrazia-aren’ izenean alderdi tradizionalaletatik –eskuin, zentroa, baita ezkerre– hurbil diren batzuk zabaldurikoa”. Baina kasu, ez gaitezen engaina: eskuin muturraren onerako doa, poliki-poliki baina segurki, ideia kontserbadoreen eta faxisten legitimazioa dakarrelako topaketa horrek. Eta justizia sozialaren bidean, atzerapausoak.

MCC Brussels, European zentraturiko ‘think tank’-a

Europa mailako ultraeskuina sendotzeko lanean dabil MCC Brussels *think tank* gogoeta taldea 2022az geroztik. 1996an sortua, hastapen batean MCC zuen izena eta Hungarian zentratua zen, baina gauzak aldatu ziren 2020. hamarkada hastapenean, Viktor Orban ultraeskuindarraren inguruak dirutza bideratu eta helburuak berrikustearekin: Europa osoari begira jarri eta “patrioten belaunaldi berria” sortzean jarri zuten helmuga. Ultraeskui-naren zutabe diren baloreak zabaltzeko asmoz, hitzaldiak, txostenak eta bilerak osatzen dabilta. Gaur egun, Europako 30 bat hiritan presente da MCC eta Bruselan du adar nagusia –MCC Brussels–, europar instituzioetan eragiteko asmoz dabilta hogeita bost bat langilerekin. Argiki, Europa mailan antiwokismoa zabaltzeko estrategiarekin dabil MCC Brussels eta zentzu horretara, ingurumenaren aldeko eragileei, zein berdintasunaren eta inklusioaren aldeko Europar Batasunak banaturiko dirulaguntzak mozteko presio-lan gogorra bideratzen ari da. Europar Batasuna “ahultzeko” eta “barnetik suntsitzeko” estrategia lantzen ere badabilta. Brexit-aren mugimendua jarraitu eta Europatik ateratzeak zekartzan zailtasunak ikusita, estrategia aldatu eta Europar Batasuna barnetik birmoldatzeko bidea dute fin-duta. Eurodiputatu ultraeskuindarrentzako lanabes inportantea da *think tank* boteretsu hori.

JULE GOIKOETXEA

“Euskal Herrian ere Trumpek eta Mileik gorroto duten guztia da woke”

Mundu mailan abiadura handian garatuz doan ideologia eta mugimendua dugu antiwokismoarena. Boterera arribatzeko eskuin muturreko agintariek duten arma berria da, eta berdin-berdin zabaltzen ari da herriko karriketan, unibertsitateetako korridoreetan zein telebista platoetan. Eta Euskal Herrian nola doa periferiako identitateen kon-

trako erasoaldia? Jule Goikoetxearekin mintzatu gara. EHUKo politika zientzietako irakaslea da bera, eta mugimendu transfeministako aktibista ere bada. Hanka bat unibertsitatean eta bestea karrikan duela, berekin solastea interesgarria iruditzen zaigu, hain justu ere, antiwokismoaren bi fronteak direlako karrika eta unibertsitatea.

■ **Mendebaldean zabalduz doan diskurtsoa dugu antiwokismoarena. Wokismo hitza erabili edo ez, baina zuk erranen zenuke euskaldunon artean ere badela kokatze ideologiko eta politiko hori?**

Statu quo-a krisian sartzen denean, sistemaren alarmak piztu eta mekanismo anitz jartzen dira martxan, krisi hori gelditu edo saihesteko. Wokismoa *woke* hitzetik dator, “esna” esan nahi du eta Estatu Batuetako afro-amerikarrek erabili izan dute, aspal-didanik, justizia sozialaren alde eta arrazismoaren kontra “esna” egoteko. Denborarekin injustizia sozial orori aurre egiteko posizio etiko-politikoa izatera pasa da eta indarra hartu du berriro azken urteetan Black Lives Matter mugimenduari esker lehenik, eta MeToo mugimenduarekin geroxeago. Euskal Herrian ere bizi dugu

‘statu quo’-aren dimentsio batzuen higadura, eta hemen ere irain moduan erabiltzen dutenak justizia sozialaren kontra daudenak dira. Laburbilduz, Euskal Herrian ere, Trumpek eta Mileik gorroto duten guztia da woke.

■ **Nola definitzen duzu zuk antiwokismoa?**

Justizia sozialaren kontrako ideologia da antiwokismoa, arrazista, antifeminista, eta oro har, gizon zuriaren –talde politiko gisa– supremazismoa defendatzen ez duen marko, praktika eta ideologia ororen kontrako jarrera politiko eta ekonomikoa da. Aldaerak ditu, lurraldez lurralde, eta sotila izan daiteke askotan, beraz, atentzioa ipini behar diogu. Pista bat, “identitate politikak” entzuten baduzue, kontuz! Gaur egun identitate politikak kategoria borrokak hierar-kizatzeke erabiltzen da, gizon zuria

erdigunean kokatzen ez duen borroka oro izendatzen baitute “identitate politika” hitzarekin, Black Lives Matterek eta LGTBQ+ mugimenduak dioten moduan. Antiwokismoaren-tzako, identitatea eta materia bi entitate edo unikornio dira; mundu ilustratu liberalean bezala, antiwoke munduan ere materialak ez diren identitate politikoak dituztelako, agidanez, eta hori oso ondo dator-kio faxismoari. Aldiz, gure “woke” munduan identitate politiko oro da materiala, menderakuntza sistemen barne sortzen direlako identitate politikoak, hau da, subjektu politikoak, eta denak dira materialak. Hortaz, haiek ezezkoa esaten badute ere, antiwokismoa pobreen eta langileen aurkako supremazismoa da finean, estatistikoki emakume arrazializatuak, migranteak eta transak baitira pobreenak.

A close-up portrait of Jule Goikoetxea Menthaka, a woman with voluminous, curly brown hair and red-rimmed glasses. She is smiling slightly and looking towards the camera. She is wearing a dark blue turtleneck sweater with a white V-neck pattern. The background is a plain, light-colored wall.

JULE GOIKOETXEA MENTXAKA

Donostia, 1981

Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Politiketako irakaslea da, baita militante transfeminista ere. Hitzaldi zein idatzien bidez, feminismo materialistaren proposamena Euskal Herri mailan plazaratzen dabil. LISIPE pentsamendu feministari buruzko liburu bildumaren zuzendaria ere da hasieratik. Hainbat liburu plazaratu izan ditu: *Tractatus* (Susa, 2014); *Independentzia helburu* (Txalaparta, 2015) Unai Apaolaza, Andoni Olariaga eta Imanol Galfarsororekin batera; *Demokraziaren pribatizazioa. Kapitalismo globala, Europa eta euskal lurraldeak* (Elkar, 2017); *Euskal demokrazia patriarkala* (Elkar eta Txalaparta, 2022) Lore Lujanbio, Zuriñe Rodriguez eta Estitxu Garairekin batera; eta berriki, *Politeismo bastarta* (Susa, 2024). Zutabegile ere da Euskal Herriko eta nazioarteko hainbat komunikabideetan.

■ **Antiwokismoa lekuko errealitateari egokitu ohi da, lekuko auzi batzuk aitzakiatzat hartu eta berea zabaltzeko. Berezitasunik ikusten diozu Euskal Herrian daukagunari?**

Euskal Herriko antiwokismoa, supremazismo mota hori euskaraz egiten duena da? [barreak]. Euskalduntasun zuria edo euskal nazio zuria nahi dutenak lirateke. Ezer berririk ez, hau izan baita beti eskumako nazionalismoa. Eta supremazismo arrazial eta nazional oro bezala, hauek ere anti-feministak dira eta noski, transen kontrakoak.

■ **Hain justu, plazaratu duzun *Politeismo bastarta* liburuan ondokoa diozu: "Eta genero femeninoaren eta maskulinoaren abolizioa eskatu baina gizon eta emakumeen desagerpena nahi ez duten horiez, zer diozue? Uste dute emakume egiten zaituena umetokiak direla, baina emakume guztiek ez dugu umetokirik, orduan bularrek, baina gizonak ere bularrak dituzte, nireak baino askoz handiagoak, orduan XX kromosomak, baina emakume askok XY dugu, XXY gara, edo X bat bidean saldu genuen..."**

Hori da. Feminismo materialistik, emakumeak emakume egiten dituen produkzio erlazio materialak eta historikoak dira, arrazializatuak eta proletarioak bezalaxe; ez ideia primitiboak (idealismoa), ezta gonadak, fenotipoak edo hormonak. Emakumeak jaio egiten direnaren ideia esentzialista eta biologista hau Euskal Herrian eskuman eta ezkerrean aurkituko dugu.

■ **Hori ere da antiwokismoaren berezitasuna, eskuin muturraren produktu ideologiko eta politiko horrekin bat egin dutela ezkerreko batzuek ere. Nola azaltzen duzu hori?**

Ez da kasualitatea, marko filoso-



"EUSKAL HERRIAN ERE BIZI DUGU 'STATU QUO'-AREN DIMITSIO BATZUEN HIGADURA, ETA HEMEN ERE 'WOKE' IRAIN MODUAN ERABILTZEN DUTENAK JUSTIZIA SOZIALAREN KONTRA DAUDENAK DIRA"

fiko patriarkal bera partekatzen dutelako sarri bi aldeek, horregatik daude ezkerreko eta eskumako anti-wokeak pozarren Erresuma

Batuan "emakumea" gonada batera, edo (praktikan) alura murriztu dutenean. Hain zuzen ere, haientzako emakumea jaio egiten delako; ez da botere erlazioen bidez egiten, jaio egiten da beltzak eta zuriak bezala, non arraza ere gene bat den, "unikornio biologiko eternal" bat edo identitate eternal bat. Hau da, kurioski, kritikatzten duten identitarismoaren oinarria, identitateak esentzializatzea eta naturalizatzea. Horregatik jende honentzako emakumeak eta gizonak ezin dira desagertu, Big Bangean sortu ginen, edo Eva eta Adamekin? [barreak]. Marko edo kosmobisio hau ez da sikiera Darwinen eboluzioaren teoriatik pasa, are gutxiago genetika ebolutibotik. Biologismo arrazista misoginoaren estandarte dira.



■ Zer ezkututzen du bere baitan antiwokismoak?

Beldurrak eragindako gorrotoa. Modernitate hetero-kapitalistaren erregea, orain arte subjektu unibertsala izan den gizon zuria –uler bedi talde politiko moduan, ez indibiduo moduan–, izaki bizidun guztien artean arrazionalena, adimentsuena, guapoena eta indartsuena, bat-batean, ez da unibertsala, ez du erreinurik, ez da guapoena, ezta indartsuena ere. Eta azken ikerketen arabera, oso adimentsua ere ez da. Eta hau esaten dugun bakoitzean, izan sareetan, kanean, lantegian, misogino arrazisten ejerzito bat hasten zaigu tiroka. Haiei boterea ematen dien marko ideologikoa arriskuan ikusten dute-lako, gauza askorengatik. Abya Yalako eta Afrikako feminista dekolonial



“ARRISKUTSUENAK EZ DIRA SAREETAN IRAINTZEN DABILTZAN IRAKASLEAK, ERRAZ IDENTIFIKATZEN DIRA HORIEK, ARAZOA EGUNEROKO BIOLENTZIA POLITIKOA NATURALIZATZEN DUTEN IRAKASLEAK DIRA”

eta postkolonialek dioten moduan, erregimen heterosexual kapitalista gizon zuri zehatz batzuen boterea eta, beraz, haien produkzio sistema mantentzean datzan erregimen totalitarioa delako. Alegia, logura eta gosea “naturalak” dira, baino jateko eta lo egiteko dugun era erregimen politiko bati dagozkio; berdina erreprodukzio biologikoarekin, zer esanik ez, desioarekin. Erregimen politikoek haien subjektuak sortzen dituzte, horrek esan nahi du gizonak ere ez direla jaiotzen, ez direla klase natural bat, ez dira kromosoma bat; egin egiten dira, botere erlazio materialen bidez, arrazializatuak bezalaxe, eta Obamak gobernatzea edo Melonik, ez ditu ez zuriak ez emakumeak ez gizonak unikornio biologiko bihurtzen, antiwokismoak, Familiaren Foroak eta TERFek nahi luketen moduan.

■ **Antiwokismoaren jomuga bada unibertsitatea, eta “gerra kulturala” deklaratu diote jakintza kritikoari. Finean, ikuspegi eta antolaketa hegemonikoa bermatzeko antolaketa politiko ideologiko bat da antiwokismoa.**

Hori da. Marko ideologikoa anto-

laketa politiko-ekonomiko zehatz bat mantentzeko da, hori da materialismoaren lehen oinarria, zeren eta nortzuk egiten dute lan gehien munduan? Emakume arrazializatuak. Nortzuk dute kapital ekonomiko gehien mundu mailan? Gizon zuriek. Nortzuk dira antiwokismoaren gehiengo zabala inperioan? Gizon zuriak, eta aztertu azken hauteskundeak munduko herrialde desberdinetan. Zer diote antiwokeek, unibertsitateko antiwokeak diren irakasleak barne? Ba, Pakitok lan asko egiten duela, joder, Mohamedek baino askoz gehiago, eta gainera Merkelek Pakitok baino askoz diru gehiago duela. Bai, eta ziur Pakitok pila bat laguntzen duela etxean. Baina horregatik asmatu ziren estatistikak, eta, oro har, zientzia. Erakusteko, Pakitok eta Merkelez haratago mundu oso bat dagoela, eta mundu horretako herrialde guzti-guztietan, emakumeek haien komunitateko edo familiako gizonek baino lan gehiago egiten dutela, eta aldi berean, gizon horiek baino kapital ekonomiko, kultural eta sinboliko gutxiago dutela. Eta berdina arrazializatuak zuriakin alderatuta. Unibertsitatean arriskutsuenak ez dira sareetan iraintzen dabilen irakasleak, horiek oso erraz identifikatzen dira, arazoa dira eguneroko biolentzia politikoa naturalizatzen duten irakasleak. Nola? Gaitegiaren bidez, klasean erabili eta inposatzen dituzten erreferenteen bidez, isiltzen dutenaren bidez, eta jakina, behin eta berriro errepikatuz feminismoa eta anti-arrazismoa ez direla benetako borrokak, “identitate politikak” direla... Esan dut, hau entzuten duzue-nean, alerta piztu ze *supremacism is in the air* (supremazismoa badabil).

■ **Euskal Herriko Unibertsitatea nola doa? Hegemonia beti bezain azkar dago eguneroko antolaketan, gogoetetan eta ekoizpenetan? Arrakalak daude**

JON URBE / FOKU

pentsaera hegemoniko horretan? Arrakalak daude eta, beraz, fronte hori antolaturik da?

Halaxe da, ikasle, irakasle eta ikerlari gazte asko daude ideologia honen kontra antolatuak. Gure hezkuntza markoa ilustrazio (neo)liberalean oinarritzen da, beraz, "unibertsala" dela suposatzen da, hau da, adjektiborik gabe doan Hezkuntza, unibertsaltasun kategoriak adjektiboak mututzen dituelako; unibertsalak askotan "toki guztietan berdina edo berdina guztiontzako" esan nahi baitu, eta hori da hain zuzen hezkuntza ez dena: berdina guztiontzako. Denak ez baikara "berdinen" multzoan sartzen. Berdinen multzoa desberdinak diren horiekiko sortzen baita eta hori da "hezkuntza ilustratu unibertsalak" ezkututzen duena. Hori ere da biolentzia sinbolikoa, ezkututzen den edo mututzen den biolentzia. Zer gertatzen da biolentzia mututua garrasika hasten denean antolakuntza feminista, anti-arrazista eta sozialistaren bidez, eta hezkuntza unibertsal hori hezkuntza patriarkala, kapitalista eta koloniala dela esaten hasten direnean bai ikasleak baita irakasleak ere? Arrakalak sortzen dira. Haserreak sortzen dira hezkuntzako eta unibertsitateko gobernu organoetan, botere guneetan, antiwokismoa armatzen da, eta orduan konturatzen zara ondo goazela, bloke antifaxista martxan dagoela goi hezkuntzan ere, eta nazioartekoa dela gainera.

■ **Unibertsitatetik at, sare sozialetan ere trukutzen dira ideiak eta gogoetak. Batzuk badabilta gora eta behera beraien jarrera transfobia, arrazista edota misoginoa zabaltzen. Zer nolako bilakaera ikusten diozu euskal komunitatearen arteko sare sozialen esparruari?**
Euskal komunitatean beti egon dira



"ANTIWOKISMOA POBREEN ETA LANGILEEN AURKAKO SUPREMAZISMOA DA FINEAN, ESTATISTIKOKI EMAKUME ARRAZIALIZATUAK, MIGRANTEAK ETA TRANSAK BAITIRA POBREENAK"

"ERREGIMEN POLITIKOEK HAIEN SUBJEKTUAK SORTZEN DITUZTE. GIZONAK ERE EZ DIRA JAIOTZEN, EZ DIRA KLASA NATURAL BAT, EZ DIRA KROMOSOMA BAT; EGIN EGITEN DIRA, BOTERE ERLAZIO MATERIALEN BIDEZ"

menderatuak eta menderatzaileak, eta berdin dirau, sare sozialetan edo kalean. Sare sozialak aldatzen doaz, ikusteke dago zein izango den euskal komunitatea batzen duen sarea, zeren eta zer da "euskal komunitatea"? Euskaraz ari dena edo euskal herrian bizi dena? [barreak]. Badaude sare sozialetan beti euskaraz egin behar dela diotenak, "sare sozialetako euskal komunitatea" sortu ahal izateko. Arazoa da sare sozialak munduaren parte direla, eta munduan egiten ditugun borrokak ez ditugula soilik euskaraz egiten. Hautu politiko bat da euskaraz biziitzea, bai, praktika arrazistak eta

heterosexualak baztertzea hautu politiko bat den bezalaxe. Baina "euskara hautu politiko bat da" dioten erdiak uste du heterosexualitatea ez dela hautu politiko bat, naturala edo biologikoa dela. Beraz, kontuz, ze arima puru asko ikusten ditut sareetan esanez euskaraz egiten ez dutenekin ez dutela ezer jakin nahi. Ba perfektu. Zure lehentasuna bada euskal komunitatea eta ez euskal komunitate feminista, sozialista eta antiarrazista eratzea, zuretzako euskaldun faxista guztiak. Ala! Ze guk ez dugu euskaraz bakarrik aliantzak egiteko aukera, hasteko, Euskal Herriko puta gehienek ez dakitelako euskaraz, etxeko langileen ehuneko laurogeiak ez dakielako euskaraz. Eta, begira, guk grebak antolatze-ko langileria guztia hartu behar dugu kontuan, euskal estatu feminista transsozialista bat eraikitzen ari gara [barreak], ez dugu ardatz bakarria kontuan hartzeko pribilegioa. Ardatz asko hartu behar ditugu kontuan, beraz, konplexutasunak traba egiten badie, haientzako euskal arima xaloen komunitatea. Euskararen aldeko borroka politikoa izango bada, borroka antifaxistaren barruan kokatu beharra dago.

■ **Nolakoa izan behar du antiwokismoa borrokatzeko estrategiak?**

Supremazismo oro borrokatzeko berberak izan behar dira, eta beraz, kapitalismoa, patriarkatua eta kolonialismoa borrokatzeko berberak. Lurraldetuak dira beti borrokak, anitzak, baina badakigu nola egin aurre, partzialki bada ere, badakigu ze marko zabaldu eta ze estrategia jarri martxan, horretan gaude, eta horregatik daude horren haserre. Garai gogorak datoz, baina ereindakoak fruituak emango ditu. Argi eta altu esan behar da hau, ziurtasun historiko honek asko haserretzen baititu [barreak]. ●

APIRIL
~
MAIATZEAN

Azokaroa!

30 ean
ORTZAIZE
MENTA
liburudenda

18.30

"HETERO" LIBURU AURKEZPENA

UXUE ALBERDI EGILEAREKIN



7 an
ZIBURU
Baltsan

19.00

"RR -6-ERRE(AH)ALA"

MAIALEN LUJANBIO ren ERREZITALDIA



10€ pintxoak barne

16 an
URRUÑA
Bertoli

19.00

"BIHARRAREN HEGIETAN"

MADDI, AINHOA eta IXAK SARASUA
eta JULEN LEZAUN
ERREZITALDI MUSIKATUA



5€ pintxoak ondotik

19 an
uhinetan
EUSKAL
RRATIAK

19.00

"EUSKARAZ SORTUZ (DUIN) BIZI ?"

MAHAI INGURUA XIMUN FUCHS (Artedrama, Axut)
ETA AMAGOIA GURRUTXAGA (Lanartea)



23 an
AZKAINE
Bil Toki

19.00

"GIZATASUN ARRANTZALE"

MIKEL EPALTZA LIBURU AURKEZPENA
EGILEAREKIN
(eta Mixel Jorajuria itzultzailearekin)



28 an
DONIBANE
LOHIZUNE
Mediateka

19.00

"MASUSTA ERREXIMENTA"

LIBURU AURKEZPENA
EKAITZ BERGARETXE EGILEAREKIN



ZIBURUKO EUSKAL
LIBURU ETA DISKO
AZOKA



ZIBURUKo 6. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Ekainaren 7an



ANTOLATZAILEAK



PARTAIDEAK



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDA
INSTITUTU KULTUR
ERAKUNDA

ZIBURU
CIBOURE